

azpeitian zer?

130. zenbakia

udal aldizkaria

2010eko uztaila




pisuzko planak
martxan

Hiri Antolamenduaren aurrerapen dokumentua eta gizon eta emakumeen berdintasuna lortzeko proiektuak abian jarri ditu Udalak



zer?



2 Inkesta

8 Erreportajea

3 Proposamenak, kexak...

12 Motxean

5 Lehiaketak

12 Soreasu


6 Azpeitiko Hiri Antolamenduaren Plangintza Orokorra

14 Euskara

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91

Paper birziklatuan egina



telefono interesgarriak

Azpeitiko Udala

Zentralita	943 15 72 00	Euskara Patronatua	943 81 45 18	Bailarako Nekazari	
Alkatetza	943 15 71 85	Udal Euskaltegia	943 81 19 47	bulegoa	943 81 24 85
Idazkaritza	943 15 71 98	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75	Enplegu Bulegoa	943 15 03 00
Kontuhartzaitza	943 15 71 89	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83	1. Epaitegia	943 02 51 91
Hirigintza	943 15 71 91	Ingurugiro Etxea		2. Epaitegia	943 02 51 92
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Fundazioa	943 15 17 13	Erregistro Zibila	943 02 51 99
Kultura	943 15 70 68	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70	DYA	943 46 46 22
Komunikazioa	943 15 79 82	Kontsumitzaileen		Gurutze Gorria	943 85 32 97
Kirolak	943 15 00 95	Informaziorako Bulegoa	943 15 71 93	S.O.S. Deiak	112
Parekidetasuna	943 15 79 28	Baigera I	943 81 51 71	Taxiak	943 81 13 07
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Baigera II	943 81 23 89	Urkome	943 81 65 00
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Ingurugiro Etxea			
Zapo Txoko	943 15 71 61	Museoa	943 81 24 48	Sexologia zerbitzua	943 15 10 30
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60			Etxebizitza bulegoa	943 81 66 99
Eguneko Zentroa	943 15 74 96	Alkoholiko Anonimoak	629 14 18 74	Astearte eta ostegunetan	
Liburutegia	943 15 71 95	AL-ANON Alkoholikoen		18:30etik 19:00etara eta asteazkenetan	
Udaltzainak	943 15 13 13	Sendiak	943 47 54 03	12:00etatik 14:00etara.	
Suhiltzaileak	112	Trenaren Museoa	943 15 06 77	Baserritarren produktuen	
Igerilekua	943 81 41 21	Anbulategia	943 02 54 00	merkaturatze bulegoa	943 15 10 29
Kiroldegia	943 81 30 69	Larrialdiak	943 02 54 01	Asteartean 10:00etatik 13:30era eta	
Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Ertzaintza (Azkoitia)	943 08 37 80	ostegunetan 16:00etatik 19:30era.	

inkesta

zer dio kaleak?

Seme-alabak udalekuetara eraman al dituzu?



Ana Etxaniz



Iñaki Azkue



Junkal Atxurra



Jon Beristain

“Udalekuetara ez eramanez gero, goizetan etxean geldituko litzateke telebista ikusten edo bideo-jokoetan jolasten. Honela, kalean ibiltzen da eta oso gustura ibiltzen da. Zerbitzu ona eskaintzen du, baina zerbait esateagatik, aukera gehiago ematea nahiko genuke. Izena ematen duzu lehen txandarako, pentsatuz ez zaiola gustatuko eta gero pozik dabilenez, ezin du jarraitu hurrengo txandan hasieratik ez zenuelako izena eman.”. ■

“Haurrari galdetu egin genion ea joatea nahi zuen eta baietz esan zuenez, udalekuetara eraman genuen. Hilabete guztian zehar egongo da, eta ez lanaren aitzakiagatik; nik lana dut baina bere ama etxean dago eta beraz, ez da horregatik. Udalekuak oso ondo daudela uste dut, eta oso gustura dabil. Egokitu zaion taldean eskolako lagunik ez zuenaren pena zuen, baina ume irekia da eta bigarren egunerako ez zitzaion axola.”. ■

“Udaleku irekiak umeen eta haurren arteko harremanak hobetzeko oso onak direla iruditzen zait eta horregatik eramaten ditut bertara. Gainera, etxean egiten ez dituzten gauza eta ekintza asko egiteko aukera izaten dute arduradunek antolatzen dituzten ekitaldiekin. Eskaintzen duten zerbitzu aldetik, berriaz, oso-oso egokia dela uste dut, gainera seme-alabak ere oso gustura ibiltzen dira.”. ■

“Emazteak eta biok lana izaten dugu uztailen zehar eta horregatik eraman behar izaten dugu alaba Udalak antolatutako udalekuetara. Zerbitzua oso ona dutela uste dut eta ez zait iruditzen zerbait falta zaionik, ez zait etortzen sartu daitekeen bestelako eskaintzarik. Ekintza aldetik ere, haurrentzat oso egokiak eta politikak direla pentsatzen dut eta gure alaba, behintzat, oso gustura ibiltzen da bertan.”. ■

Proposamenak, kexak...



Garraio publikoa

Azpeititik Donostiarako garraio publikoa hobetu beharrean gaude, batik bat larunbat eta igandeetan. Festak direla eta garraio bereziak egoten dira herri askotan, Guipuzcoanak berriz abuztuan inoiz baino zerbitzu gutxiago eskaintzen du.

Eneko Aranbarri

Argia Urrestillarako bidean

Urrestilla bidean oso argi gutxi dago eta gaueetan ez da ezer ikusten. Ba al dago asmorik farola batzuek jartzeko?

Mikel L.B.

Zebrabidea

Suhiltzaile inguruan zebra pasagune bat ahal da ipini?

Plaza oinezkoentzat

Zatitxo bat, jai egunetan sikiera... noizko Azpeitiko plaza oinezkoentzat?

Olatz

Errepidean zuloak

Euskal Herria auzunean, Errotaundi parean bide gorria egiten aritu dira, horrekin batera aparkalekuak berritu dituzte. Gauza da, jada seinalizatu dituztela, bai bide gorria eta errepidea.

Baina normala iruditzen al zaizue, obretan jardun den errepidea zuloz beteta egon eta soilik zuloak tapatu dituztela galipota botata? Uste dut hobe izango zela kale osoan bota balute galipota. Lehen gaizki bazegoen, orain okerrago utzi dute.

Azpeitiarra

Txakur kaken ontziak

Legeak lege dira eta bete egin behar dira baino betetzeko baldintza onak izan beharko ditugu, ezta? zertaz ari naizen? Kanpaina bat hasi da Azpeitian txakurra duginok kakak bildu behar ditugula aginduz. Guk beti bildu izan ditugu gure txakurraren kakak baina arazo larri bat dugu: kakak botatzeko edukiontzirik ez badago zer egiten dugu beraiekin, etxeko zakarrontzira bota? hori ez da kontua. Sanjuandegitik pasatzen den eta Azkoitiraino doan bidegorrian apenas dago zaborrontzirik eta askotan kilometroak egiten ditugu txakurraren kakak eskutan hartuta. Hori ondo irudituko zaizue, ez? ba hurrena arauak jarri aurretik kondizio onetan ipini. Agur bat eta espero dugu betetzea eskakizun hau.

Joxe Jabier Arizaga

Santutxoko espaloiak

Kaixo! Santutxotik Etxe Alaira doazen espaloiak oso egoera kaxkarrean daude (eskuineko espaloia ia ez da existitzen ze betidaudekotxeakaparkatuta espaloiairen gainean eta ezkerrekoa (igogailura doana) oso gaizki dago, gainetik ezin dela ibili, harri solte ugarirekin, hanka azpiak

urratzen dituela, euria egiten duenean irrastakorra... Santutxotik igogailura edo Etxe Alai aldera joateko errepidetik joan behar izaten dugu. Errepidea estua da, aldaparekin ez dago bisibildade asko eta zenbait kotxe oso azkar pasatzen dira hortik duen arriskuarekin. Metro batzuk bakarrik dira, beraz, ez da hainbeste kostatuko baldosa berri batzuk jartzea ezta? Urteak dira ezin dela hortik ibili!

Agurtzane Gomez

Loiolako sarrera

Kiruritik Loiolarako sarbidean aparkamendutarako norantzan, kurba txarra dago "Katalango" baserri ondoan eta ez da ikusten beste aldetik kotxerik badatorren. Susto bat baino gehiago badatorren. Susto bat baino gehiago hartzen dira, eta hori ekiditeko ispilatu bat jartzea eskatuko nuke, konponbide erraza eta guztion onerako izango dena. Eskerrik asko.

Naroa Larrañaga

Santutxo-Arana-Etxe Alai

Santutxo, Etxe-alai eta Aranak bizilagun guztiok errepide berdina erabiltzen dugu gure auzoetatik irteteko, bide-zoruaren egoera tamalgarria da, dagoeneko adineko pertsonen erorketa eta estropezu batzuk ikusi ditut Prat aurreko maldaren hasieran. Noizko konpondu behar da zuloz eta pitzaduraz beteta dagoen bidea? Zebrabideko guinea, batik bat, hondatuta dago. Ez behar bat gertatu aurretik konpontzea espero dugu. Agur: (erredakzioan itzulia)

Angel



www.azpeitia.net



Sartu zaitez **www.azpeitia.net** udal webgunean

- **Tramiteak eta ordainketak** etxetik egiteko modua eskaintzen dizu.
- **Udal albisteak** uneoro ezagutzeko.
- **Zure kexa, iritzi eta iradokizunak** plazaratzeko.
- **Plenoetako aktak, udal ordenantzak, hiri antolamenduaren plan orokorra** eta beste hainbat dokumentu ofizial kontsultatzeko.

- **Hemiarren inguruko informazio erabilgarria** eskuratzeko, ekitaldien agenda eta guzti.

Eta gainera:

- **Sexologia zerbitzua on-line:** hileko azken ostiralero sexologoak zuen kezak on-line erantzungo ditu.
- **Udal liburutegia:** bertako katalogora on-line sartzeko aukera eskaintzen dizu udal webguneak.

www.azpeitia.net. Udala zure eskura, klik batean.

Sari banaketen garaia iritsi da

Azpeitia ezagutzen eta Loraldi lehiaketetako irabazleen izenak jakitera eramango dira hurrengo egunetan

azpeitiko Udalak lehiaketa desberdinak antolatu ditu azken hilabeteetan eta amaierara iritsi direnean, txapelketa bakoitzeko irabazleei sariak banatuko zaizkie. Alde batetik, Azpeitia ezagutzen lehiaketa eta bestetik, berriz, Loraldi, balkoi eta leihoak lorazteko bigarren ekimena.

Azpeitia ezagutzen lehiaketa herri-gutunaren 700. urteurrena gogoratzeko antolatu zen eta herriko historiari buruzko jakin-mina piztu eta lehenaldiko datuak errepasatu eta ezagutzea ziren helburu nagusienak.

Loraldi 2010, berriz, iazko esperientzia errepikatzen antolatu da. Eskolako Agenda 21 programan parte hartu zuten ikasleek alkateari luzatutako eskaera baten ondorioz sortutako ekimenak herriko balkoi politenak edo ondoen apaintutakoak saritu nahi ditu.

lehiaketak



arduradunak oso gustura agertu dira izandako partaidetzarekin; helduen mailan 94 pertsonak hartu dute parte eta gazteen mailan, aldiz, 327. Guztira, 421 herritar: "Partaidetza oso altua izan du. Jendea oso gustura gelditu da, eta gehiagotan antolatzen gomendioak ere jaso dira", adierazi dute udaletxetik.

sariak. Helduen mailan, Iparraldeko landa-turismo etxe batean bi pertsonentzat asteburua izango da sari nagusia. Bigarrenak hegoaldeko landa turismo etxe batean bi lagunentzat asteburua jasoko du eta hirugarrenak, bi lagunentzat afaria Larrañaga jatetxean. Gazteen mailan, ordenagailu eramangarria, informatika denda batean gastatzeko 300 euroko txartela eta kirol denda baterako 150 euroko bonoa izango dira sariak.

urtarrila eta maiatza artean aldizkari honetan galdera sorta desberdinak egin ziren eta

Maila bakoitzeko hiru irabazleek uztailaren 26an jasoko dituzte euren



herriko balkoi eta leiho ederrenen argazkiak udaletxe azpian egon dira, herritarrek ikusi eta euren botoa eman ahal izateko.

Orain, falta dena boto guztiak zenbatu eta Santio egunean sariak banatuko dira udaletxeko areto nagusian egingo den ekitaldian.

Horrela, eta aurreko urteko ohiturari jarraituz, hiru sari nagusi banatuko ditu Udalak herritarrek euren balkoiak apaintzeko egindako ahalegina eskertzeko; balkoi edo leiho berritzaileena, balkoi edo leiho tradizionalena eta herritarren saria. Hirurek, nekazal etxe batean gau bat edo bestela, aurrekontu berdinarekin, lora denda batean erosketak egiteko balea eskuratuko dute.

Azpeitiko Hiri Antolamenduaren Plangintza Orokorra

2011tik 2020ra herriko lurzoru bakoitzari eman dakizkiokeen erabilerak zehaztuko dira



Azpeitiko argazki panoramikoa

azpeitiko Udalak Hiri Antolamenduaren Plangintza Orokorra idazteko prozedura hasi zuen orain hilabete batzuk. Plan horren bidez, eta 2011tik 2020ra doan aldirian, herriko hirigintzaren antolamendua egin, eta lurzoru bakoitzari eman dakizkiokeen erabilerak zehaztuko dira, bai etxegintzan, bai industrian eta baita beste zenbait arlotan ere.

Udalaren Hirigintza eta Ingurumen Batzordearen zuzendaritzapean, eta Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak emandako txostenak aztertuta, Plangintzaren dokumentua idazteko ardura izan duen talde teknikoak prozeduraren baitan beharrezkoak diren lehen dokumentuak idatzi ditu. Hala nola, AURRERAPEN DOKUMENTUA edo ABANTZEAK

ezarri beharreko ordenazioaren irizpide, helburu eta irtenbide desberdinak jaso ditu, eta INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN BATERAKO EBALUAZIO RAKO AZTERLANAK ingurumen organoak emandako irizpideak aintzat hartuz, antolamenduan kontuan hartu beharreko iraunkortasun neurriak jaso ditu.



Corrugados empresa gaur egun.

Hauek dira jaso diren aukeren ildo nagusiak:

- Zarautz-Azpeitia Eremu Funtzionalaren Lurraldearen Zatiko Planak agindutakoa betez, Udalkide guztien adostasuna duen helburua beteko da. Izan ere, alternatiba guztietan jaso da Lasao, Anardi eta Badiolegiren artean dagoen Trukutxo izeneko eremuan kokatuko dela gaur egun herri-gunearen erdi-erdian dagoen Corrugados jarduera ekonomikoa. Planak aurreikusi du libre geratuko den Amue izeneko eremuan etxebizitzak egingo direla.

- Aurrerapen dokumentuak Etxebizitza eskaintzan hiru alternatiba orokor aurreikusi ditu. Nolanahi ere, alternatiba horiek ez daude itxita eta jendaurreko epealdian aurkeztu daitezkeen iradokizunak eta irtenbideak kontuan izanik horiek mantendu edota berraztertu daitezke.

Euskal Herriko Lurralde Antolamenduaren Batzordeak bidalitako txostenaren arabera, etxebizitza berrien kopurua 1.000 eta 1.600 tartean kokatu beharko litzateke.

Agiri hori kontuan izanik, alternatiba batek gehiengo kopurua jaso du, beste batek gutxiengoa, eta hirugarren batek, berriz, tartekoa.

Alternatiba horien arteko desberdintasunak dira, besteak beste, Izarraizpe eremuan etxebizitzak eraikitzea ala ez, eta gaur egun etxegintzarako kalifikatuak dauden Azkune, Oiarzabal eta Madalena harrobiko eremuekiko proposamenak.

- Bestalde, mugikortasun alorrean oinezkoen eta bidegorrien loturak, eta trena edo tranbia jartzeko aukera ezberdinak ere aurreikusten dira.

Indarrean den legediak ezarritako prozedura jarraituz, Udalak dokumentuak jendaurrean jarri ditu Udaleko Idazkaritzan eta www.azpeitia.net web orrian 2010eko irailaren 20ra arte (egun hori barne). Epe horretan, herritarrek iradokizunak eta irtenbide proposamenak aurkeztu ahal izango

dituzte Udalaren Erregistro Nagusian. Modu berean, epe horretan Herriko Hirigintzako Aholku Batzordeak, eta inguruko udalerriek, beren iritzia ere emango dute.

Epe hori igaro ondoren, eta horren emaitza ikusita, hurrengo pausoa Udalak Plangintza Orokorren irizpide, helburu eta irtenbideak onartzea izango da, eta talde teknikoak plangintza orokorraren dokumentua osatu ondoren, Udaltatzak onartu eta berriro ere jendaurrean jarriko du, kasu honetan alegazioak aurkezteko aukera zabalduz. Gainera, alorreko beste administrazioek beren txostena emango dute. Hurrengo betebeharra izango da Udaltatzak alegazioak eta txostenak aztertu, eta horren ondorioz egingo den dokumentuari behin behineko onarpenera ematea. Jarraian, Euskal Herriko Lurralde Antolamenduaren Batzordeari eta Ingurumen organoari beren azken txostenak ematea eskatuko zaie, eta bukatzeko Udaltatzak behin betiko onarpenera emango dio plangintzari.

Berdintasunak badu bere plana

Hurrengo lau urteetako gidalerroak zehaztu dira dagoeneko



Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren bidean lanean jarraitzen du Azpeitiko Udalak eta eman dituzten urrats guztietan garrantzitsuena izan daitekeena aurkeztu du Parekidetasun Sailak eta Emakumeen Mahaia egindako agerraldian: Berdintasunerako lehenbiziko Udal Plana, hain zuzen ere. Udalbatzak joan den maiatzaren 6an onartu zuen aho-batez Plana eta honekin, berdintasunerako bidean urratsak ematen jarraitzeko konpromisoa berretsi zuen Udalak.

“Emakumeen mahaitik garbi utzi nahi dugu planaren ibilbidea hasi besterik ez dela egin eta orain guztioi dagokigula hau guztia gauzatu dadin konpromisoa hartzea”, agertu dute arduradunek.

“planaren ibilbidea hasi besterik ez da egin eta orain guztioi dagokigu gauzatu dadin konpromisoa hartzea”

Parekidetasun Saila duela hiru urte eratu zen eta ordutik, emakumeen

eta gizonen berdintasunerako bidean hainbat egitasmo landu ditu: “Hala ere, beharrezkoa da garatzen diren egitasmo eta ekimen guztiak norabide berdinean kokatzea, eta urte luzeetan mugimendu feministak eta Emakumeen Mahaia eskatutakoari erantzunez Udalak Berdintasunerako I Plana diseinatzeko konpromisoa hartu zuen. Berdintasun Planean beraz, datozen lau urteotan garatuko diren berdintasun politiken gidalerroak zehazten dira.”, adierazi du Parekidetasun Saileko buru den Onintza Etxeberriak.

Udalaren lehen Plana ahalik eta errealena izateko, Azpeitiko emakume eta gizonen bizitzaren esparru ezberdinetan bizi duten egoera aztertzea beharrezkoa da eta horregatik, genero diagnostikoa egin zen lehenengo.

“plana osatzeko prozesuak ia bi urte iraun du eta herritarren parte hartzeak lehentasuna izan du hasieratik”

“Genero diagnosia eta Berdintasun Plana osatzeko prozesuak ia bi urte iraun du, herritarren parte hartzea ziurtatzeak

guretzat lehentasuna izan baitu hasiera hasieratik. Aipatu behar da mugimendu feministako kideez eta beste eremuetan lanean diharduten beste emakumeez osatutako talde eragile bat izan dela prozesu guztia dinamizatu duena Oreak Sareari lagunduz, eta Emakumeen Mahaitik ere jarraipena egin zaiola. Prozesua guztia parte hartzailea izan da eta hemendik eskerrak eman nahi dizkizuegu datu bilketa guztian zehar zuen denbora eskaini diguzuen guztioi”, azaldu dute Emakumeen Mahaiko kideek.

Genero diagnosiari dagokionez bi eremu aztertu dira, batetik Udalaren

egitura eta funtzionamendua, eta bestetik herriko beste eremuak (euskara, hezkuntza eta gazteria, kultura eta kirola, hirigintza eta mugikortasuna, gizarteratzea eta osasuna, emakumeen kontrako indarkeria eta arlo ekonomikoa). Datu bilketarako aldiz hauek izan dira emandako pausoak: 30 elkarrizketa udal langile eta udalaz gaindiko erakundeekin, 400 kale inkesta, Udaleko langileei inkestak eta bost eztabaida talde eremu ezberdinetako emakumeekin: kirolarekin, kultur arloko emakumeekin, emakume gazteekin, emakume etorkinekin, laneratzeko arazoak dituzte emakumeekin.


Diagnosi honetatik ateratako datu eta ondorio nagusienak hauek izan dira:

1.- DATU OROKORRAK:



- Biztanleriaren %49,6a emakumezkoa da.
- Pertsona bakarreko familia ereduen eta seme alabarik gabeko guneen kopurua bikoiztu egin da azken bi hamarkadetan.
- 2008ko datuen arabera latinoamerikarrak dira emakumeak nagusitzen diren talde bakarra, besteetan joera alderantzizkoa baita.

2.- UDALA



- Udaleko 17 ordezkari politikoetatik soilik 6 dira emakumeak. Batzordeen banaketa ere oso esanguratsua da: Hirigintzan eta Industrian parte hartzaile guztiak gizonak diren bitartean Parekidetasun batzordea da emakumeen parte hartzea handiagoa den batzorde bakarra.
- Udal langileei dagokionez, emakume eta gizonen presentzia orekatua den arren, emakume gehienak bulego edo barneko lana egiten duten bitartean gizonak kanpo lanetan aritzen dira.
- Soldatei dagokionez, talde profesionalak kontuan hartuz, kasu guztietan gizonak emakumezkoak baino soldata altuagoak dituzte.

3.- HEZKUNTZA, EUSKARA ETA GAZTERIA



- Udal euskaltegiari dagokionez 2008/2009 ikasturtean 159 emakume matrikulatu ziren eta 85 gizon. Joera hau, Haur Etorkinen programan ez ezik, maila guztietan ere ematen da.
- Zapo Txokoko erabiltzaileen artean emakumeen presentzia baxuagoa da, hau da, sexu banaketa argia ikusten da ekintza hauen osaketan, baita ikastaroetako parte hartzean ere.
- Udaleku irekien kasuan 38 begiraleetatik, 32 emakumeak izan ziren.

4.- KIROLA ETA KULTURA



- Azpeitiko kultur ekimenetan emakumeen presentzia altuagoa da baina antolatutako ekimen esanguratsuenetan gizonen presentzia askoz altuagoa da (adibidez, Danborrada)
- Kultur baliabideei dagokionez erabiltzaile gehienak emakumezkoak dira.
- Musika eskolako datuak aztertuz, sexu banaketa argia dagoela baieztatu dezakegu, tresna batzuen geletan emakumeen presentzia nagusitzen baita eta beste tresna batzuetan mutilena.

5.- HIRIGINTZA



- Eztabaida taldeetako emakumeek erakutsi dute behar zehatzak dituztela: puntu ilunak detektatzea herri mailan segurtasuna bermatzeko, zaintza lanen inguruan dituzten beharrak asetzeko, irisgarritasun arazoak e.a.
- Kale izendegian emakumeen presentzia oso urria da eta dauden biek, arrazoi erlijiosoei erreferentzia egiten diete.

6.- GIZARTE ZERBITZUAK ETA OSASUNA



- Etxez etxeko zerbitzuetan lan egiten duten guztiak emakumeak dira.
- Zerbitzu ezberdinen erabiltzaile gehienak emakumeak dira.
- Emakume etorkinak erakartzeko dituzten arazoak aipatzen dituzte ginekologia eta emagin zerbitzuek. Hizkuntza arazoak, arrazoi kulturalak, e.a. honek osasun arretan dituen kalteak azpimarratuz.

7.- ARLO EKONOMIKOA



- Jarduera tasari dagokionez emakumeena askoz baxuagoa da.
- Merkatuak eta honek sortutako egiturek, amatasuna emakumeen garapen profesionalean oztupo bezala aurkezteak eragin zuzena du emakume askoren bizitzan.
- Etxeko eta zaintza lanen ardura emakumeen esku izateak, eragina du beraien garapen profesionalean, eta ardura sexuen artean banatzeaz gain, errealitate berrietara moldatzen den eredu berria sortzearen beharra azpimarratu dute herritarrek.

hala ere, Emakumeen Mahaiko kideek agertu dutenez, “gehien harritu gaituzten datuak kale inkestan jasotako erantzunak izan dira”. Besteak beste, emakumeak dira ezberdintasunak identifikatzerakoan erraztasun gehien erakusten dutenak. Hala ere, gehienek uste dute ezberdintasunak asko gutxitu direla

orokorrean, baina adibide zehatzen erantzunei erreparatuz oihartzun gara desberdintasunak hor daudela eta gero

“gehien harritu gaituzten datuak kale inkestan jasotako erantzunak izan dira”

eta zailtasun gehiago ditugula hauek identifikatzeko. Beraz berdintasunean oinarritutako gizarte batean bizi garen ideia faltsua nagusitzen da erabat.

Soldataren kasuan edo enplegua aurkitzeko momentuan, berriz, %70ak baino gehiago uste du emakumeak egoera okerragoan daudela. Ardura

postuetara iristeko edo enplegu egonkorra bilatzeko ere, %50ak baino gehiagok uste du emakumeek zailtasun gehiago dutela. Bizitza laborala eta familiarra bateratzeko, zaintza eta etxeko lanen ardura, eta kalean bakarrik ibiltzeko egon daitezkeen arriskuei dagokienez ere, %60ak baino gehiagok uste du egoera okerragoa dela emakumeentzat. Azkenik, Danborradan emakumeen presentzia orekatua lortzeko neurriak hartzearen alde emakumeen %62,5 agertu da eta beren iritziz etxeko

lanetan behar bezain beste lan egiten ez dutenen artean %93a gizonezkoa da, baina era berean, hauetatik %28ak uste du modu justuan eginda dagoela lanen banaketa.

“danborradan emakumeen presentzia orekatua lortzeko neurriak hartzearen alde emakumeen %62,5 agertu da ”

Horrela, diagnosian ateratako ondorioetan eta EAeko Berdintasun Legeak ezartzen dituen irizpideetan oinarrituta, Azpeitiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I Udal Plana osatu da. Lau ardatz eta sei arlo lantzen dira. Ardatzak mainstreaming-a, ahalduntzea eta gizartearen eta politikaren parte-hartzea, bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna eta emakumeen aurkako indarkeria dira. Arloetan, kultura, hezkuntza, lana, gizarteratzea, osasuna eta hirigintza, garraio publikoa eta ingurumena kokatzen dira.



Onintza Etxeberria
Parekidetasun Saileko Batzordeburua

Bi urte luzeen ondoren gustura al zaudete lortutako emaitzarekin?

Egia esanda, luzea izan da benetan prozesua, baina epe zehatz baten barruan lana amaitzea baino nahiago genuen lan txukun bat egin eta herritarren parte hartzean oinarritutako Plan bat esku artean izatea. Beraz planaren diseinuari dagokionez gustura gaude emaitzarekin.

Planaren egitura aztertuta ekintza eta helburu asko barneratu dituzue. Posible al da guztia lantzea?

Lau urteetan garatu beharreko plana izanik, formula egokia bilatu behar dugu dena garatu ahal izateko. Urte bakoitzean lehentasunen arabera

helburuak adostuko dira, eta hauek garatzeko ekintzak dira landu beharko direnak. Ekintza bakoitza oso zehatza da eta urtero ekintza horiek izango dira teknikoki baloratuko direnak. Beraz Plana osorik landu ez arren, lantzen den guztia norabide egokian egitea dela ziurtatzea da garrantzitsua.

Zergatik diozue Planaren ibilbide orain hasten dela?

Azken urteetan beste hainbat Udaletan Plana onartu eta ez du garapenik izan. Azpeitiko Udalak Plana garatzeko hartu du konpromisoa eta horregatik diogu ibilbidea orain hasten dela. Konpromiso hau gabe errazena izango litzateke Plana onartu eta ezer ez egitea.


Nola ziurtatuko duzue Plana garatuko dela?

Plana aho batez onartzea izan da lehen urratsa. Behin plana onartuta jarraipenerako batzordeak eratuko dira bai maila politikoan, baita teknikoan ere plana ondo lantzeko. Bestalde herritarrek ere jarraipena egin diezaioten, jarraipen batzorde bat ere martxan dugu.

Zein izango dira emango diren lehen urratsak?

Pauso txiki baina sendoak ematea da. Eremu guztietan landu beharreko gaia izanik, arlo bakoitzean gutxiengoak lantzen joango gara, eta datozen urteetan martxan jarri beharreko egitasmoak ondo lantzeko lan egiturak eta tresnak sortzea izango da gure helburua.

Landetako saihesbideak sarrera izango du



Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako ebazpena behin behinekoa izango da

azpeitiko Udalak eta Landeta eremuko hainbat jardueren titularrek Gipuzkoako Foru Aldundiaren Errepedietako Zuzendaritzari egindako eskaerak erantzuna izan du eta Landetako biribilgunearen eta Zabaletxeko gunean egiten ari diren biribilgune berriaren artean (Citroen eta Inox parean) sarrera-irteera bat egokituko dutela aurreratu dute udal ordezkariak. Izan ere bestela, autoek Landetatik, Lan Mobil enpresa ondotik, sartu behar zuten, itzuli handiagoa eginez. Ebazpen hau behin behinekoa izango da eta izaera horrekin jarraituko du inguruabarrak edo baldintzak aldatzen ez diren bitartean, edota denboran zehar emandako esperientziak irteera bera edota hala balegokio bidegurutzea bere osotasunean aldatzearen berrazterketa ekartzen ez duen bitartean. Bestalde, Loiolako errotonda berriko lanak direla-eta, espaloi zati bat itxita egongo da San Ignazio festak iritsi bitartean. Espaloi zati hau Hotel Loiola aldekoa da eta beraz, oinezkoek Esklabak aurreko zebra-bidean gurutzatu beharko dute eta eliza aldeko bidetik joan Loiolarantz. Hala ere, hotelerak edo inguruko etxeetara sartu behar duten pertsonak, bide bat izango dutela adierazi dute arduradunek.

Urrestillak bere liburutegia du



Euskarazko eta gaztelarazko 94 liburu berri daude eskura haur eta gazteen lokalean

azpeitiko Udal Liburutegiaren zati bat Urrestillara eraman da bertako herritarrei liburutegia gerturatzeko eta irakurzaletasuna bultzatzeko asmoarekin. Euskarazko zein gaztelarazko 94 liburu gehitu dira lehendik zeunden 100 liburu eta hiztegi bildumari. Zerbitzu berria Urrestillako haur eta gazteen lokalean ezarri da. Nahiz eta lokal hau 8 eta 14 urte bitartekoentzat izan, liburutegi zerbitzua adin guztietako herritarrei zuzenduta dagoela nabarmendu nahi dute arduradunek eta liburutegia erabili nahi dutenek lokalera sartzeko txartela eskatu behar dute Gazteria sailean, 943 157161 telefono zenbakian. Momentuz, zerbitzu berria hasi bakarrik egin da eta denborarekin liburutegia zabaltzen joango dira. Horrela, hasieran "autozerbitzu" moduan egingo du lan, hau da, ez da inor izango bertan eta herritarren esku geldituko da liburutegiaren kudeaketa eta bertako liburuak txukun izatearen eta guztiak behar duen bezala funtzionatzearena ardura.

San Agustin urrirako prest



Espainiako Gobernuak 300.000 euro emango ditu ekipamendu teknikoa osatzeko

San Agustín kulturgune berria urriaren amaieran zabaltzea espero da. Hala aurreratu dute Azpeitiko Udaleko arduradunek, falta zen sinadura eman baitu Espainiako Gobernuko Etxebizitza Ministerioak. “Aspaldidanik zain geunden albisteak iritsi da. Kulturgunea ekipatzeko beharrezkoa zen sinadura eman du dagoeneko Etxebizitza Ministerioak eta modu honetan, azken faseko lanak egin ahal izango dira”, adierazi du Ana Mendizabal Kultura zinegotziak. Lanek bi hilabeteko epea izango dute baina Mendizabalek esan duenez, “abuztua tartean gelditzen da eta beraz, baldintzatu egingo du baina urria amaieran irekitzea espero dugu”. Hala ere, uztaila amaierarako material guztia bilduta egongo dela agertu du zinegotziak. Ekipamendu teknikoa osatzeko 300.000 euro emango ditu Espainiako Gobernuak eta besteak beste, argiztapena eta soinua ezarriko dira. Behin inauguratutakoan, formatu txikiko ikuskizunak hartuko ditu, izan ere, 300 pertsonarentzako eserlekuak izango ditu.

Eskualdeko ekoizle eta produktuak salduz



Urkomek bertako produktuak ezagutarazteko gida kaleratu du

eskualdeko ekoizleak eta produktuak sustatzeko helburu nagusiarekin, Urkome, Urola Kosta Landa Garapen Elkarteak *Urola Kosta Natural-Naturala* izeneko gida kaleratu du. Modu honetan, Eskualdeko 11 herrietako nekazal produktuen ekoizleak gida bakar batean bildu dituzte, estreinakoz. “Liburuxka honen ezaugarri nagusienetakoa, produktua eta turismoak bat egiten dutela da; honela gure eskualdeak duen ezaugarri nagusia ardatz harturik, landa eremuan landu, ekoiztu, elaboratu eta saltzen diren produktuak ezagutarazi nahi izan ditugu”, agertu du Urkomeko kudeatzaile den lurre Peñagarikanok. Eskualdeko produktuen barietate eta kalitate aberatsa ezagutaraztea, bertako produktuak saltzeko bide berriak irekitzen laguntzea, bertako produktuak prezio duin batean saltzeko bideak irekitzea, bertako produktuen kontsumoa eta ezagupena areagotzea eta komertzializazio bide laburrak sustatzea espero dute arduradunek gida berri honekin eta horretarako, 3000 aleko tirada izango du eta Urkomeko bulegoan edota eskualdeko udal, turismo bulego eta nekazal bulegoetan eskuragarri egongo da.

Soreasuko aparkalekuak zabaldu dituzte

Irailaren 1a bitartean guztiz doan izango da eraikineko lehen solairuan aparkatzea



Udaleko eta obretako arduradunak Soreasun.

Soreasuko aparkalekuak abian jarri dira eta beraz, bertan autoa aparkatu nahi dutenek egin dezakete dagoeneko. Eraikin berriak bi solairuko aparkalekuak ditu; batetik, lehenbizikoan txandakako 131 aparkaleku plaza daude eta bestetik, berriaz, bigarren goan erosi dituztenenak edota urteko bonoa dutenentzat 109 aparkaleku daude, hauetatik lau elbarrituentzat direlarik. Gainera, bideo-zaintza zerbitzua dago eta erabiltzaileek izan ditzaketen edozein arazo konpontzeko, Udaltzaingoarekin konektatzen duen interfonoa ezarri da. Hasiera bezala, lehen solairuko txandakako aparkalekuan autoa uztea doan izango da irailaren 1era bitartean. Hala ere, aparkalekura sartu eta irten ahal izateko txartela hartu beharko da. Irailaren 1etik aurrera, aldiz, lehen ordu eta erdia doan izango da, baina hortik aurrera ordaindu egin beharko da; 91. minututik aurrera, minutu bakoitza

0,008333 euro kostako da. Arduradunek ziurtatu dutenez, egun osoan autoa aparkatuta izatea 10 euro baino gutxiago izango da.

Lur azpiko aparkalekua eguneko 24 ordutan zabalik egongo da, baina segurtasun neurri bezala, 22:00etatik hasi eta 07:00ak arte oinezkoen atak itxi egingo dira. Hala ere, txartelean

azalduko den zenbakia idaztea nahikoa izango da atak irekitzeko.

Autoentzako sarrera eta irteera puntu bakarra dago, Soreasu auzora joateko bidean kokatzen dena eta oinezkoentzat bi irteera ditu (beste bi larrialditarako), bat Soreasu auzora irteten da eta bestea, berriaz, lehen Soreasu zine aretorako sarbidea zena.

Bonoak egiteko aukera

Hilabeteko edo urteko txartela egin ahal izango dute erabiltzaileek.

Iehenbiziko bi hilabeteak dohainik izango diren arren, irailetik aurrera bonoak egiteko aukera izango dute autoa Soreasun aparkatu nahi duten herritarrek. Horrela, hilabeteko txartelak 50 euro balioko ditu eta urtekoak, 500 euro. Bi prezioek BEZa barneratuta dituzte.

Euskarazko hutsuneak betetzen

Azpeitiko Udal barneko euskararen erabilera plan berria onartu du



Patxi Saez, Ana Mendizabal eta Miren Segurrola.

hutsuneak bete eta jarduera osoa euskaraz egitea. Hori da Azpeitiko Udalak onartu berri duen Udal barruko euskararen erabilera planaren helburu nagusia. Maiatzeko Udalbatzarrean onartu zen dokumentua 2010-2012 epeko plangintza da, eta aurreko planaren jarraipena dela adierazi dute arduradunek. “Aurreko legegaldian urrats handiak eman ziren, ia jarduera guztia euskaraz egitera iritsi gara. Oraingo planarekin, falta diren hutsuneak betetzea da nahi”, azaldu du Ana Mendizabal Euskara batzordeburuak.

Udal barneko plana UEMAK bideratu du. Bost hilabetez, kanpora begira zein udal barruan Azpeitiko Udalean egiten den euskararen erabilera neurtzeko datu bilketa burutu da eta Miren Segurrola teknikariaren hitzetan, “datu bilketa horrek erakutsi du Udala aurretik pauso asko emandakoa dela. Baina benetan ikusi nahi zena zen erabilera hori norainokoa den”.

Datu bilketa egiteko, langileei dokumentuak eskatu eta galdetegi bat luzatu zaie eta hizkuntza paisaiaren behaketa egin dute. “Orokorrean emaitzak oso onak izan badira ere, normaltasunez euskaraz lan egiteko ezintasuna dakarten hainbat elementu ere identifikatu dira. Besteak beste, langileek erabiltzen dituzten aplikazio informatiko guztiak ez daude euskaraz; gaur egun langileek jasotzen duten prestakuntza ia gehiena gaztelaniaz eskaintzen diete; hornitzaileekiko harremanak gaztelaniaz dira...” agertu du Segurrolak.

Plangintza hau bukatutakoan, helburua lortuta izatea espero dute arduradunek, izan ere, “Azpeitiko, ziur aski, euskararen erabilera normalizaziorantz urrats gehien egin eta eman dituen bere mailako Udala da”, gaineratu du Euskara Patronatuko zuzendari den Patxi Saezek.

Uztailaren 1ean
Udalbatza osoak egindako
bilkuran hartu ziren
erabakiak ondorengo
hauek izan ziren:

1.- 2010eko ekainaren 3an egindako bilkuraren akta onartzea.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Iraunkortasunerako Konpromisoari adierazitako atxikimendua; UDALSAREA 21 Iraunkortasunerako Euskal Udalek sarea finkatzea.

3.- Azpeitiko Perdillegi Zan Karmelo Etzegarai ikastolaren jolas-tokia estaltzeko proiektua onartu, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak 2010eko maiatzaren 27ko Aginduaren bidez onartu den deialdian dirulaguntza eskatzea.

4.- Udal kiroldegia Patronatua Harrera, Uretako Sorospena, Igeriko Jarduerak, Aerobika, Mantenimenduko Gimnasia, Muskulazioa eta antzeko jardura fisikoen zerbitzuen kudeaketa indirektoa esleitzeko kontratazio espedientea onartzea.

5.- Eraikuntza, Instalazio eta Obren Gaineko Zergan salbuespena edo hobaria ematea.

A) irigarritasun arrazoiak
Salbe auzoa 3, Olazko Andre Mariaren Plaza 2, 3, 5 eta 10, Arana Goikoa 8, 9, 10 eta 15, Agirre auzoa 3, Euskal Herria 33, Urrestillako Kale Barrena, 17.


B) nekazaritza arrazoiengatik
- Azpeitiko Oñatz auzoan ARTEGI bat jartzea.
- Loiola auzoan *berotegia* irekitzeko.
- Loiola auzoan baserria berreraikitzea.

6.- Alkatetzak Ejecución 857/01-2 prozeduran emandako autoaren aurrean aurkeztu den kasazio errekurtsioan Udalen defentsan arituko diren zuzendariak berretzea.

agendauztaila

UZTAILA

	1	2	1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	



19tik 24ra

SAN IGNAZIO 400. URTE HERRIKO
FESTEN PATROIA ERAKUSKETA

18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

24, larunbata

Haurrentzako ikuskizuna
12:00etan
Lekua: Sanjuandegin

XXX.SAN IGNAZIOTXIRRINDULARI SARIA
16:00etan
Lekua: Plaza Nagusia

AZPEITIA DANTZAN
BULGARIAKO NAIDEN KIROV TALDEA
eta SAHATSA TALDEAREN ikuskizuna
22:00etan
Lekua: Plaza Nagusia

MUSIKA KONTZERTUA
23:00etan
Lekua: Perez Arregi Plazatxoan

25, igandea

UDAL MUSIKA BANDA
DIANA ETA DESENKAJONAMENTUA

BASERRITARREN EGUNA
11:00 Eskualdeko Ganadu Erakusketa eta XII
Gazta Lehiaketa
12:00 XXXVIII sagardo lehiaketa Plaza
Nagusian eta Txekorra dastatzeko aukera
paregabea. Bertsolariak

LORALDI BALKOI ETA LEHIO
LEHIAKETAKO SARI BANAKETA

SAN IGNAZIOETAKO ZEZENKETAK
ERAKUSKETA
12:00etatik 14:00etara
Lekua: Betharam Aretoa

18:30 DESENKAJONAMENTUA
Lekua: Zezen Plaza
22:00 Musika emanaldi bikaina
Lekua: Plaza Nagusia

26, astelehena

SAN IGNAZIOETAKO ZEZENKETAK
ERAKUSKETA
18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharam Aretoa

27, asteartea

SAN IGNAZIOETAKO ZEZENKETAK
ERAKUSKETA
18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharam Aretoa

UDAL MUSIKA BANDA
AZPEITIKO PASODOBLEAK
21:00/21:30
Lekua: Plaza Txikian

28, asteazkena

SAN IGNAZIOETAKO ZEZENKETAK
ERAKUSKETA
18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharam Aretoa

29, osteguna

SAN IGNAZIOETAKO ZEZENKETAK
ERAKUSKETA
18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharam Aretoa

30, ostirala (ikus egiraraua)

SAN IGNAZIO BEZPERA
TXUPINAZOA

SAN INAZIOETAKO ZEZENKETAK
ERAKUSKETA
18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharam Aretoa

31, larunbata (ikus egiraraua)

SAN IGNAZIO EGUNA

SAN INAZIOETAKO ZEZENKETAK
ERAKUSKETA
12:00etatik 14:00etara
Lekua: Betharam Aretoa

AZPEITIA DANTZAN
BURIATIAKO BAIKALSKEVOLNI
DANTZA TALDEA
23:30ean
Lekua: Plaza Nagusia

botikatxandak



ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74
Uztailaren 7, 13, 16, 19, 24, 25, 27 eta 29an.

ARANBURU. Plaza Nagusia - Goiko kalea 2
Tel.: 943 81 13 50
Uztailaren 5, 10, 11, 17, 18 eta 22an.

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49
Uztailaren 2, 6, 12, 21, 23, 28 eta 30ean.

EIZAGIRRE. Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74
Uztailaren 1, 8, 15, 20, 26 eta 31n.

JACOME. Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58
Uztailaren 3, 4, 9 eta 14an.

